



European Network of Ombudspersons for Children

## Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea

### "Haurraren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko adierazpena (CRIA)

ENOCek 2020ko azaroaren 18an egindako 24. batzar orokorrean onartua

***"Ez dago eragin neutroko politikarik haurrentzat. Nahita edo nahi gabe, politika orok eragin positiboa edo negatiboa du haien bizitzetan".***

Haurren Defentsarako Europako Sareko (ENOC, ingelesezko siglengatik) kide diren defentsa-erakundeek gure gobernuai, Europako Kontseiluari eta Europar Batasuneko erakundeai eskatu nahi diegu haurren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazio-prozesuak (CRIA, ingelesezko siglengatik) eta haurren eskubideen gaineko eraginaren analisi-prozesuak (CRIE, ingelesezko siglengatik) erabil ditzatela, haur eta nerabeen eskubideak legetan, politiketan, aurrekontu-esleipenetan eta beste erabaki administratibo batzuetan integratzeko, bai eta prozesu horiek erakunde publiko guztietan sar daitezen sustatzeko eta laguntzeko ere<sup>ii</sup>.

Gure gomendioen helburua da gobernuak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (HEH) eta giza eskubideei buruzko gainerako nazioarteko itunak betetzen dituztela bermatzea, haur eta gazteei eragiten dieten neurrian<sup>iii</sup>. Era berean, Europako Kontseiluak estatu kideei "haurren gaineko eraginaren ebaluazioen kalitatea eta eraginkortasuna jasotzeko eta hobetzeko zereginean" laguntzeko konpromisoa gauzatuz joateko helburua dute<sup>iv</sup>, aldi berean, Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko koordinatzaileei Europako politiketan eta araudian haurren eskubideak sustatzen eta babesten lagunduz.

**Kontuan hartuta** estatuek Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak arautzen dituen eskubideak aplikatzeko dituzten betebeharrak eta, bereziki, 4. artikulua, zeinak gobernuai exijitzen baitie "(...) konbentzio honetan aitortutako eskubideak gauzatzeko egokiak izan daitezkeen lege-eta administrazio-neurri guztiak edo bestelakoak hartzea (...) <sup>vn</sup>.

**Kontuan hartuta** gobernu-maila guztiek eta zerbitzu publikoak ematen esku hartzen duten guztiek bermatu behar dutela, Hitzarmenaren 3. artikulua araberan, *haurraren interes gorena funtsezko kontsiderazioa dela haurrei eragin diezaieketen ekintza guztietan*.

*Hurrek beren iritzia askatasunez emateko duten eskubidea errespetatu behar du haurraren interes gorenaren ebaluazioak, bai eta haiei eragiten dieten gai guztietan iritzi horiek behar bezala aintzat hartzeko duten eskubidea ere, Hitzarmenaren 12. artikuluaekin bat etorri<sup>vi</sup>.*

**Kontuan hartu behar** da ume, neska-mutil edo nerabe talde jakin batzuei eta haurrei banaka eragiten dieten erabaki guztiek haurren eskubideen gainean duten eragina.

**ENOCek estatuei zein estatuetakoko, eskualdeetako, Europako eta nazioarteko agintariei eta beste agintaritzak eskudun guztiei eskatzen die CRIA eta CREI prozesuak aplikatu daitezela, Hitzarmenaren aplikazioa kontrolatzeko neurri gisa, betiere erabakiak hartzeko prozesuetan haurren eskubideen ageriko integrazioa are gehiago sustatzearen.**

## 1. Zer dira haurren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioa (CRIA) eta haurren eskubideen gaineko eraginaren azterketa (CRIE)?

Bi prozesuak, CRIA eta CRIE, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeak aitortzen ditu Hitzarmena aplikatzeko neurri orokor gisa, Hitzarmenaren 4. artikularekin bat etorriz. Eragina ebaluatzeko prozesu horiek, haurren eskubideetan zentratuta, proposamen edo neurri orokor haur eta nerabeen eskubideetan izan dezakeen eraginaren ebaluazio eta komunikazio sistematikoa babesten dute. Mekanismo horren bidez, gobernuak, erakundeak eta zuzenbidearen, politika publikoaren eta praktikaren esparruko beste neurri batzuek haurren eskubideei nola eragiten dieten ebalua daiteke; eta, amaitzeko, txosten idatzi bat egiten da, prozesuan zehar bildu eta kontuan hartu diren frogen berri emateko.

Haurren eskubideetan oinarritutako bi eragin-prozesu mota daude:

- **Haurren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioa (CRIA)**; horri esker, aztertzen da zer eragin izan dezaketen haur eta gazteengan arau-proposamenek, politika publikoak, aurrekontu-erabakiek edo bestelako erabaki administratiboak, egiten diren heinean, eta, beharrezkoa izanez gero, edozein eragin negatibo saihesteko edo arintzeko mekanismoak iradokitzen dira. *Prozesu hori erabakia edo neurria aplikatu aurretik egiten da.*
- **Haurren eskubideen gaineko eraginaren azterketari esker (CRIE)**, kontuan har daiteke lege-aldaketek, politika publikoak, aurrekontu-erabakiek edo bestelako administrazio-erabakiek zer ondorio izan dituzten haur eta gazteengan. *Prozesu hori dagokion erabakia hartu edo neurria aplikatu ondoren egiten da.*

Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordearen gomendioekin bat etorriz, CRIA eta CRIE prozesuek, batera, aukera ematen dute haurren eskubideei buruzko arau, politika publiko, aurrekontu, programa eta zerbitzuen eragina ebaluatzeko eta aztertzeko etengabeko prozesu bat gauza dadin<sup>vii</sup>.

### CRIA eta CRIE sartzeko eta erabiltzeko jarduera-arauak

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeak adierazi du nola erabili beharko liratekeen haurren eskubideen gaineko eragina baloratzeko prozesuak, haurren eskubideen ageriko integrazioa susta dezaten erabakiak hartzerakoan, eta arlo horretan gobernantza ona berma dezaten. Hauek dira funtsezko betekizunak:

1. HEH eta bere protokolo fakultatiboak erabiltzea ebaluaziorako eta analisirako esparru gisa.
2. Horiek gobernu osoan gauzatzea, ez bakarrik haurren arloan eskumena duten sailetan.
3. Haurren eskubideetan eragin zuzena eta zeharkakoa kontuan hartzea.
4. Haurren inpaktua pertsona helduengan duen inpaktuarekiko desberdina izan daitekeen edo neska-mutilen taldeen artean inpaktu desberdinak sor daitezkeen egiaztatzea.
5. CRIA ebaluazioa ahal bezain laster egitea, bai eta CRIE analisisia ere, neurria ezarri denetik adostutako denbora igaro ondoren.
6. Probetan oinarritzea, haurren eta nerabeen parte-hartzea eta ekarpenak aintzat hartuz.
7. Gomendioak ematea Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena betetzen dela bermatzeko, kontuan hartuta erabaki hori lagungarria izan daitekeela haurren eskubideez jabetzeko.
8. Ebaluazioak eta analisiak argitaratzea.

## 2. Zergatik dira beharrezkoak CRIA eta CRIE?

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordea (UNICEF), haurren eskubideetarako *ombudsman*-ak/komisionatuak eta mundu osoko haurren eskubideen defendatzaileak haurren gaineko eragina ebaluatzeko prozesu sistematikoak ezartzearen alde daude, honako arrazoi hauengatik:

- Hurrek eta nerabeek eskubide eta behar espezifikoak dituzte, helduen eskubide eta beharrez bestelakoak, eta behar bezalako begirunea zor zaie.
- Haurren ongizatea gizarte eta ekonomia osasuntsua bezain funtsezkoa da nazio batentzat, baina gutxitan ematen zaio garrantzi bera.
- Haurrak eta nerabeak erabaki publikoak hartzeko prozesuetatik kanpo geratzen dira neurri handi batean, boto-eskubiderik gabe eta defentsa-ahalmen mugatua dutela, helduen bidez izan ezik.
- Gobernuak hurrekin duen erantzukizuna hainbat sail eta erakunderen artean zatituta egoteko joera dago.
- Gutxitan egiten zaie kontsulta haur eta nerabeei, eta gobernuaren prozesuetan ikusgarritasun orokorra urria da.
- Hurrek helduek baino gehiago erabiltzen dituzte zerbitzu publikoak, eta zerbitzu publikoen mende daude; beraz, aukera asko dago haurrentzako ondorio kaltegarriak izateko zerbitzu horiek huts egiten dutenean edo eskasak direnean.
- Hurrek eta nerabeek sarbide txikiagoa dute erreklamazio-, konponketa- eta konpentsazio-mekanismoetara<sup>viii</sup>.

## 3. Haurren parte-hartzea eta rola CRIA prozesuan

***"Batzuetan, hurrei pentsatzen dutena galdetzea bezain sinplea da parte-hartzea. Ez du zertan beti oso konplikatu izan"<sup>ix</sup>.***

Europako Aholkulari Gazteen Sarearen 2020ko Foroak (ENYA, ingelesezko siglengatik) hurrek erabakiak hartzeko orduan dituzten eskubideak eztabaidatu zituen. Aholkulari gazteek nabarmendu zuten garrantzitsua dela erabakiak hartzeko eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzea, eta Estatuari gogoraraztea haurren eta nerabeen eskubideak errespetatu, babestu eta gauzatzeko betebeharra dutela, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenarekin bat etorritz.

Aholkulari gazteek honako gomendio hauek egin zituzten CRIA ebaluazioa sustatzeko:

- Estatuak ebaluazio orokorrak egin beharra ezarri beharko lukete, eta iritzi publikoa horretaz sentsibilizatu.
- CRIA ebaluazioak hainbat artikulutan, estatistika eguneratutan eta egokitan eta hurrei egokitutako informazioan oinarritu behar dira.
- Hurrek eta nerabeek CRIA eta CRIE prozesuetan parte hartu behar dute.
- Hurrek eta nerabeek beren eskubideei buruzko informazioa izan behar dute, CRIA ebaluazioa barne.
- Helduek Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenari eta CRIA prozesuari buruzko informazioa izan behar dute.
- Helduek haurren iritziak errespetatu eta jarrera irekia hartu behar dute.



European Network of Ombudspersons for Children

- Haurren eskubideak defendatzeko orduan, komisionatuek eta *ombudsm*anek zeregin garrantzitsua bete beharko lukete CRIA prozesuetan.
- Ondorioak egon behar dira ebaluazio CRIA bat falta bada, erabiltzen ez bada edo osatu gabe badago.

Azken gomendioan CRIA ebaluazioa egin beharko litzatekeen gaien zerrenda bat aipatzen da. Zerrendak jasotzen ditu aurrekontuei buruzko erabakiak eta COVID-19ak haurren eskubideetan duen eragina.

Aholkulari gazteek honako gomendio hauek egin zituzten parte-hartzeari buruz:

- Haur eta nerabe guztien parte-hartzea hobetzeko beharra.
- Parte-hartzea haurren eta nerabeen hizkeran eta terminoetan egituratu beharko litzateke.
- Beharrezkoa da haurrei eta gazteei informazioa eta prestakuntza ematea.
- Helduak informatu eta sentsibilizatu behar dira haurrek parte-hartze esanguratsua izateko duten eskubideari buruz.
- Beharrezkoa da parte hartzeko plataforma digitalak sortzea.
- Beharrezkoa da gazteek zuzendutako parte-hartzea sustatzea.
- Gazteen boto-eskubidea baloratu beharko litzateke herrialde guztietan.

**ENOCek estatuei zein estatuetak, eskualdeetako, Europako eta nazioarteko agintariei eta beste agintaritzak eskudun guztiei honako gomendio hauek hartzeko eskatzen die:**

- 1. Haurren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioak (CRIA) eta analisiak (CRIE) egin daitezkeen eskatzea, haurren eskubideen ikuspegia jasotzeko, betiere araudi-, politika publiko-, aurrekontu- edo beste administrazio-erabaki batzuei dagokienez.**
  - a) CRIA eta CRIE prozesuen aplikazioa lege-agindu baten bidez babestea, arauak egiten, politika publikoak formulatzen, aurrekontu-erabakiak hartzen eta horiek guztiak gauzatzen parte hartzen dutenek ebaluazio CRIA bat egin dezaten ziurtatzeko, baldin eta haurrengan eragina izan dezaketen neurriak planteatzen badira, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan.
  - b) Eragina ebaluatzeko eta aztertzeko Nazio Batuen Batzordeak Haurren Eskubideei buruz ezarritako oinarriko prozedura-arauak betetzen dituzten CRIA eta CRIE prozesuak garatu eta aplikatzea. Hori haurrengan eragin zuzena duten erabakiei ez ezik, haurrei zuzenean bideratuta ez dauden baina eragin diezaieketen erabakiei ere aplikatzen zaie.
  - c) Zehaztea noiz, non eta nola egokitzen diren CRIA eta CRIE prozesuak, betiere legeak, aurrekontuak, politika publikoak eta administrazio-neurriak garatzeko zikloaren barruan.
  - d) CRIA ebaluazioa ahalik eta lasterren egin beharko litzateke araua, politika publikoa, aurrekontua edo administrazio-neurria garatzeko prozesuan. Dagokion neurria aplikatu ondoren adostutako aldia igarota egin beharko litzateke CRIE analisia.
- 2. Haurrek banaka nahiz haur taldeek dituzten eskubideak betetzen direla zaintzea entzunak izateko eta CRIA eta CRIE prozesuetan parte hartzeko.**
  - a) Haurren parte-hartzeak eraginkorra eta esanguratsua izan behar du, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordearen 12. Ohar Orokorrean ezarritako betekizunekin bat etorritik<sup>x</sup>.



European Network of Ombudspersons for Children

- b) Haur eta nerabe guztiei beren eskubideei buruzko informazioa ematea –euren adinerako informazio egokia, eskuragarria eta inklusiboa–, bai eta orientazioa eta laguntza ere, CRIA eta CRIE prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten.
- c) Pertsona helduek jarrera irekia hartu behar dute, haurrei beren iritziei buruz galdetu behar diete CRIA prozesuaren hasieran, eta ziurtatu behar dute beren iritzia errespetuz tratatzen direla. Haurrak informatuta eta tartean sartuta edukitzea prozesuaren parte izan beharko litzateke.
- d) CRIA prozesuetan hainbat haur-taldek parte hartu beharko lukete, ahulak direnak edo marjinazioa jasaten dutenak barne. Proposamen batek gehien ukituko dituen eskubideak dituzten haurrek CRIA prozesuan parte hartuko dutela bermatzeko beharrezkoa den laguntza jaso behar dute.
- e) Haurrek entzunak izateko eskubidea gauzatu ahal izateko espazio seguruak eskaintzea.
- f) Haurren eta nerabeen iritzia erregistratzea, eta erabakiak hartzeko prozesuan nola eragin duten azaltzea, eta haien iritzia kontuan hartzeko moduari buruzko informazioa ematea, CRIA eta CRIE prozesuetan parte hartu beharko luketen jarduerak baitira.
- g) Haurren eskubideak defendatzeko komisionatuek eta ombudsmanek funtsezko zeregina izan dezakete CRIA prozesuetan, haurren iritziei ahotsa emanez eta haien izenean esku hartuz, batez ere beren kabuz defendatu ezin diren umeei dagokienez.

**3. Behar diren neurriak hartzea, haurren eskubideak CRIA eta CRIE prozesuen zerbitzura aplikatzeko baliabide egokiak eta beste neurri orokor batzuk daudela bermatzeko.**

- a) CRIA eta CRIE prozesuen aplikazioa babestea tresna multzo bat ezarritik, hala nola funtsezko galderak, formularioak eta/edo jarraibideak, prozesuaren koherentzia eta aplikazio integrala bermatzeko.
- b) Ikuspegi zabala hartu behar da haurren eskubideei buruzko artikulua eta xedapenei dagokienez, horiek garrantzitsuak izan baitaitezke CRIA edo CRIE prozesu batean, eta ez dira kontuan hartu behar nabarmenenak bakarrik.
- c) Ziurtatzea CRIA eta CRIE prozesuek baliabide egokiak dituztela beharrezko langileei, ikerketa gehigarriak enkargatzeko kostuei eta/edo ebaluazioan eta/edo analisisian txostena eman dezaketen kontsulta publiko edo espezifikoa egiteko kostuei dagokienez.
- d) Etengabeko eta nahitaezko prestakuntza-programa baten bidez, CRIA eta CRIE prozesuak egiten laguntzea, maila guztietan erabakiak hartzeko arduraren pertsonak gaitzeko eta euren trebetasunak garatzeko. Prestakuntzak haurren eskubideei eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenari buruzko informazioa eman beharko luke, bai eta eskubide horien gaineko eragina ebaluatzeko eta aztertzeko prozesuei buruzkoa ere.
- e) Haurrei eta gazteei buruzko datu nahiko eta fidagarriak biltzea eta eskuragarri jartzea, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren aitortutako eskubide guztiak barnean hartuta, CRIA eta CRIE prozesuak egiteko laguntza-tresna gisa.

**4. CRIA eta CRIE prozesuak gardenak izatea, hartutako erabakien berri modu egokiagoan ematen laguntzea eta haurrek erabaki horietan zer neurritan eragin duten adieraztea.**

- a) CRIA eta CRIE prozesuak eskuragarri jarri beharko lirateke, ahal bezain laster, kanpoko azterketa egiteko. Horretarako, argitaratu egin beharko lirateke, eta interesdun guztiak parte hartu beharko lukete.
- b) Kanpoko azterketa horren zati gisa, agintariek hartutako erabakiei buruzko kontuak eman behar dituzte, gomendioak zergatik ez diren onartzen edo aplikatzen azaldu behar dute, hala badagokio, eta haurren iritzia nola hartu diren kontuan eta dagokien garrantzia eman zaien adierazi behar dute.



European Network of Ombudpersons for Children

- c) Lege batek, politika publiko batek edo aurrekontu- edo administrazio-erabaki batek haurren eskubideetan ondorioak dituzenean eta haurren gaineko eraginaren aurretzako ebaluaziorik gabe hartzen denean, aurkaratu egin behar da.
- d) Eraginaren ebaluazioaren eta analisiaren praktika hobetzeko berme-sistemak ezartzea, haurren eskubideetan adituak diren pertsoneri sarbidea erraztuz, bai barrukoei bai kanpokoei, eta CRIA edo CRIE prozesuak identifikatuz eta eskura jarriz eta jardunbide egokiak partekatuz.
- e) ENOCeko kideekin lankidetzan aritzea, CRIA eta CRIE prozesuekin lotutako jardunbide egokiak garatzeko eta horien ondorengo azterketa sustatzeko.

#### **5. CRIA eta CRIE prozesuen ezagutza eta ulermena garatzea eta zabaltzea.**

- a) Europako instituzio eta gobernuak nazioarteko eta nazioarteko diziplinarteko ikerketa-programa bat babestu beharko lukete, haurren eskubideen gaineko eragina ebaluatzeko prozesuak ulertzea eta garatzea sustatzeko.
- b) Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeak haurren eskubideen gaineko inpaktua ebaluatzeko prozesuei buruzko eztabaida orokorreko jardunaldi bat antolatu beharko luke, eta irizpide eta gomendio berriak eman beharko lituzke CRIA eta CRIE prozesuei buruz, ohar orokor bat eginez.

**ENOC Europako Kontseiluarekin, Europar Batasuneko erakundeekin, nazioarteko agintariekin eta beste agintaritzak eskudun batzuekin arituko da lanean gomendio horien aplikazioa sustatzeko eta gainbegiratzeko, 1) gomendioa onartzearen alde eginez, 2) CRIA eta CRIE prozesuen ezagutza, ikaskuntza eta ulermena partekatuz, eta 3) beharrezkoa denean, haien aplikazio eskasa zalantzan jarriz.**

<sup>i</sup> UNICEF and European Commission (2014) [Child Rights Toolkit Module 5: Child Impact Assessments](#), para.1.1. New York: UNICEF.

<sup>ii</sup> Europako Kontseiluko 34 herrialdetako 43 erakunde independentek osatzen dute ENOC, eta haurren eta gazteen oinarritzko eskubideak babestea eta sustatzea du helburu nagusi.

<sup>iii</sup> ENOCen gomendioak honako hauetan oinarritzen dira: haurren eskubideei buruzko nazioarteko arauetan, ENOCeko kideen iritzietan, ENOCek CRIARI buruz egindako laburpen-txostenean eta Europako Aholkulari Gazteen Sarearen (ENYA) iritzietan.

<sup>iv</sup> Council of Europe (2016) [Strategy for the Rights of the child: 2016-2021](#), para. 28.

<sup>v</sup> Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren 4. artikulua.

<sup>vi</sup> Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzardea (2013), 14. Ohar Orokorra, haurrak bere interes gorena funtsezko kontsiderazioa izateko dituen eskubideei buruzkoa (3. art., 1. paragrafoa), 43.

<sup>vii</sup> Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzardea (2003), 5. Ohar Orokorra, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aplikatzeko neurri orokorrei buruzkoa (4, 42 eta 44. artikulua, 6. paragrafoa), 45.

<sup>viii</sup> Corrigan, C (2006) [The development and implementation of Child Impact Statements in Ireland](#), Dublin: Office of the Minister for Children; Hanna, K, Hassall, I and Davis, E (2006) [Child impact reporting](#), in Social Policy Journal of New Zealand, no.29, pp.32-42; Hanna, K and Mason, N (2011) [Putting children at the centre of policy development](#), p.10, Washington, DC: First Focus on Children; Paton, L and Munro, G (2006) [Children's Rights Impact Assessment: the SCCYP Model](#), Edinburgh: Children and Young People's Commissioner for Scotland (CYPCS); UNICEF Canada (2014) [Child Rights Impact Assessments: the fundamentals. Evidence submitted by Unicef Canada to the Standing Committee on Human Rights, 3 Feb 2014](#), Toronto: Unicef Canada..

<sup>ix</sup> ENYako aholkulari gaztea, ENYA Foroa, 2020ko urriaren 4a.

<sup>x</sup> Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzardea (2009), 12. Ohar Orokorra, haurrak entzuna izateko duen eskubideari buruz, 133-134 or.



*ENOC Europar Batasuneko Eskubide, Berdintasun eta Herritarren Programak (2014-2020) kofinantzatzen du. Argitalpen honen edukiak ENOCen iritziak baino ez ditu adierazten, iritzi horien arduradun bakarra baita. Europako Batzardeak ez du bere gain hartzen informazio horren erabileraren gainerako erantzukizunik.*